

23.3. PARTIZIPIO DEKLINATUAK

Partizipio soilen erabilera aztertzeko, jaso ditugun adibideak deklinabide kasu marken arabera aurkeztuko ditugu.

absolutua:

«Damutute na dana jan biar esa» - (Damututa nago dena jan behar eza)

«Estekosu setan juen» - (Ez daukazu zertan joan)

«Lastimie lena etorri esa» - (Lastima lehenago etorri eza)

«Tripetatik basabis be ur egosidxe, ona izaten da» - (Tripetatik bazabil-tza ere ur egosia, ona izaten da)

«Badakitt ser esan» - (Badakit zer esan)

«Esta setan etara» - (Ez da zertan atera)

«Aixiek botata ero estai pa ser eiñe ongo san, eseuken iñun be golpe ba pe» - (Haizeak botata edo ez dakit ba zer egina egongo zen, ez zeukan inon ere kolpe bat ere)

instrumentala:

«Bierra eiñes seoser eingo dabe» - (Beharra eginez zer edo zer egingo dabe)

«Asidxes doye, badoye asidxes» - (Haziz doa, badoa baziz)

«Eiñes eiñes akordetan die orrek gausok» - (Eginez eginez gomutatzen dira gauza horiek)

eskero:

- «Egixe esaneskero naikue da» - (Egia esanez gero nabikoa da)
- «Sera bustieskero, or dator satorra» - (Zera bustiz gero, hor dator satorra)
- «Bein san blasak pasaueskero pasau itte san a» - (Behin san blasak pasatuz gero pasatu egiten zen bura)
- «Batzuetan, ori ikusieskeo bai, bañe txalak mordue jaxxo sien gu lo frankil eitten gausela» - (Batzuetan, hori ikusiz gero bai, baina txabalak mordoa jaio ziren gu lo lasai egiten gaudela)
- «Egosidxen sartzen die, ba, erremolatxie ta, egosieskeo dana ona» - (Egosian sartzen dira, ba, erremolatxa eta, egosiz gero dena ona)
- «Ganauek eukiñ esko ardixek eukiñ esin» - (Ganaduak edukiz gero ardiak eduki ezin)

leku genitiboa:

- «Bilbotik ekarrikue gordeta da» - (Bilbotik ekarrikoa gordeta dago)
- «Nik etxien estot, e, esautu, bañe or, e, Uribarriñien egoten sien, e, arto malutias einëko, koltxoyek, da gu umiek eta iguel ogañien saltoka ta, da Nikasia, erdi koittau bat or da» - (Nik etxean ez dut, ezagutu, baina hor, Uribarriñean egoten ziren, arto malutagaz egineko, koltxoiak, eta gu umeak eta beharbada obe gainean saltoka eta, eta Nikasia, erdi koitadu bat hor eta)
- «Serran ebaikue baño obie da ori asko be» - (Zerran ebakikoa baino bobea da hori asko ere)